

OPERA. Stefan Anton Reckek zuzendu du obraren arlo musikala, eta Nuria Espertek, berriz, arlo eszenikoa

Pucciniren 'Turandot'-ek zabalduko du OLBEren urrezko ezteien denboraldia

Bartzelonako Liceuk eta Tolosako antzokiak ekoitzi duten obran Ainhoa Artetak eta Alessandra Marc sopranoek parte hartuko dute

E. Ezkerra | BILBO

Operak eman zion bizia Giacomo Pucciniri (Lucca, 1858-Bruselas, 1924), eta operak kendu zion berari. Fortunato Magi osabarekin musikaren magia deskubritu zuen mutil koxkorra, hamalau urterekin Luccako St. Martino eta St. Michele elizetako organoen notei ukitu zerutiarra ematen zien hura, Verdiren *Aida* ikusi eta orduantxe konturatu zen zein zen bere benetako bokazioa. Baina bidea ez zen espero bezain erraza izan. Konpositore bakarlarari legez ezagutzera eman aurretik, zenbait kolaboratzaileekin egindako operak —*Le villi*, *Edgar*— erabateko arrakastaren eta publikoaren indiferentziaren artean kokatu ziren. Puccinirentzat ez zegoen erdibiderik. Gauza bera gertatuko zen bakarrik konposaturiko *La bohème*—gaur egun adituek italiarraren maisulantzat jotzen dute, baina kritika ugari jaso zituen 1896an—, *Tosca* edo *La fanciulla del West* operekin.

Beraz, gazarroa aspaldi atzean utzia zuen Puccinik bere ibil-

bideari norabide berria ematen ahalegindu zen 1920an. Goziren testuetan oinarriturik, *Turandot* izango zenaren proiektuari ekin zion. Maitagarri ipuinen antzera obra hark bazuen ukitu fantastikoa, baina pertsonaiak maitatu, gorrotatu eta desiratu egiten zuten hezur-haragizko gizakiak ziren; alegia, Puccinik opera bezala ulertzen zuena definitzen zuen lan hark. Baina hura konposatzen ari zela gaixotu egin zen, eta handik gutxira eztarriko minbizia zuela jakinarazi zioten. Bruselan hartu zuen tratamenduaren ostean gaitzaren atzaparretatik askatuko zuela zirudienean, bihotzak huts egin zion eta halaxe hil zen konpositore italiarra. Bere azken ametsa, *Turandot*, ikusi gabe utzi zuen mundua.

Puccini OLBEren denboraldian

Baina sarritan gertatu ohi denaren kontra, opera hura ez zen bazterrean ahaztuta geratu. Franco Alfano hura zuzendu eta amaiera egokia bilatzeko arduratu zuen, eta gugana heldu den *Turandot* bi jenio horiek uztarturiko lanaren emaitza da.

'TURANDOT'

Opera amaiturik ikusi gabe hil zen Giacomo Puccini, bihotzekoak jota. Franco Alfano bukatu zuen obra

Opera Lagunen Bilboko Elkar-teak zirkuitu operistikoaren obra kutun bihurtu denarekin zabalduko du larunbat honetan 2002-2003ko denboraldia. Sorpresaz eta ospakizunez beterik etorriko den denboraldia, hain zuzen, OLBEk 50 urte beteko baititu datorren urtean. Data esanguratsu horren aurrean, erakunde-ko arduradunek egoeraren mailara egongo den *Turandot* ekarri nahi izan dute Bilbora. Bartzelonako Liceu eta Tolosako (Akintia) antzokiek ekoitzi dute, eta Stefan Anton Reck—musika— eta Nuria Espert—eszena— ditu zuzendari. Artisten artean, Alessandra Marc eta Ainhoa Arteta sopranoak zein Ignacio Encinas tenorra daude.



Alessandra Marc eta Ainhoa Arteta sopranoak.

Turandot-ek ederra bezain krudela den *Turandot* Txinako printzesaren istorioa kontatzen du. Haren edertasunak eta koroak erakarritu, asko dira mundua zeharkatu eta printzesaren aurrean belaunikatzen diren zaldunak. Baina *Turandot*ekin ezkondu nahi duenak berak asmatu hiru proba igaro beharko ditu, bestela herriaren aurrean hil beharko dute.

Opera

Izenburua: Turandot.

Egilea: Giacomo Puccini.

Musika zuzendaria: Stefan Anton Reck.

Zuzendari eszenikoa: Nuria Espert.

Artistak: Alessandra Marc, Ainhoa Arteta, Ignacio Encinas, Erwin Schrott, Luis Sintes, Jose Ruiz, Eduardo Santamaria, Jose Manuel Diaz, Pedro Calderon.

Non: Euskalduna jauregian.

Noiz: Irailaren 21, 24, 27 eta 30.

ANTZERKIA. Kataluniako zuzendariaren antzezlan berriaren azken emanaldia izango da Bilboko Arriaga antzokian, gaur arratsean

E. Ezkerra | BILBO

Ediporen tragedia sekula idatzi den gidoi poliziakorik onena dela dio Luis Pasqualek. «Halaxe esaten zuen Alfred Hitchcockek, eta ados nago. Nahiz eta testu klasikoaren gainean jaso ditugun itzulpenak bereziki ilunak izan diren, Greziako antzerkia arras demokratikoa eta herrikoia zen». Are gehiago, gaur egun munduan gertatzen diren tragedien tragedia dela dio Pasqualek. Gazako plazan hil berri dioten semea beso artean darman amak ezin hobeto bete zezakeen Yokastaren rola, azken batean aita-semeen arteko borroka da hangoa. Horregatik, orain Ediporen mitoak inoiz baino gaurkotasun handia duela eta Pasqualek testu klasikoak erreparatzeari ekin dio; Greziako pertsonaiekin lotura duen

'Edipo XXI' obran Greziako tragedia ezagunaren bertsio gaurkotua osatu du Luis Pasqualek

oro irakurri—Sofokles eta Euripides klasikoetatik hasi eta Jean Geneten amaituz—, eta halaxe sortu du *Edipo XXI*.

Meridako antzerki jaialditik arrakasta handiz igaro ostean, *Edipo XXI* Bilbora etorri da. Atzo lehen emanaldia eskaini zuten, eta gaur Bizkaiko hiriburuaren egingo duten bigarren eta azken saioa ikusteko aukera egongo da.

Testu indartsua, dekoratu minimoa

Sofoklese idatzirikoa *Oedipus Rex*-en muiari leiala izan zaion arren, Pasqualek ezin izan dio gogoko zituen obra zatiak sartzeko irrikari eutsi, eta, beraz, *Edipo XXI*-ek badu Eskiloren



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

Luis Pasqual zuzendaria, atzo, Arriaga antzokian.

Prometeo kateaturik-etik zerbait, Euripidesen *Antigona*-ren aztarnak ere antzeman ahal zaizkio, edo Jean Geneten *Lau ordu Chattilan*-etik ateratako lau lerro bereiz daitezke. Azken horiek obrari ukitu dramatikoagoa emateko asmoz gaineratu ditu Pasqualek.

Testuaren indar horren aurrean dekoratuak ia biluzik uztea erabaki du *Edipo XXI*-eko zuzendariak. Apaltasun bera erakusten dute aktoreen jantziek, pertsona eta kokaleku arruntak sortzea baita Pasqualek helburua. «Greziako antzerkian hitzak zuen garrantzia, hura baitzen emozioak eta sentimenduak garraiatzen zituen». Pertsonaien roletan Raul Pazos, Andreu Benito, Jesus Castejon, Francesc Garrido, Pep Guinyol, Teresa Lozano eta Vicky Peña aktoreak ariko dira.